

AURKIBIDEA

Urtarrilaren 19an, URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA.....	4
Urtarrilaren 26an, URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA	11
Otsailaren 2an, JAUNAREN AURKEZPENA	19
Otsailaren 9an, URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA	27
Otsailaren 16an, URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA	35
Otsailaren 23an, URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA.....	42
Martxoaren 2an, URTEAN ZEHARREKO VIII. IGANDEA.....	49
Martxoaren 5ean, HAUSTERRE EGUNA	56

Urtarrilaren 19an
URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA (C)

Haur Misiolarien jardunaldia

Agurra

Gure onerako gizakien aurrean agertu zen Kristo izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Eguberritan ospatu berri dugun misterioa eta hasi berri dugun Jubileu urtearen poza eragile dugula, Haur Misiolarien jardunaldiak bizitza eta misioa partekatzearen poza gogorarazten digu igande honetan. Horixe da, hain zuzen Iganderoko Eukaristian ospatzen duguna: Jesusen gurutzeko eskaintza dela gure bizi-eredua.

Denok, haurrak ere bai, misiolari izatera deituak gara. Ospa dezagun misterio eder hau.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure ardurapean dituzu zeru-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza
eta eman zeure bakea gure egunotan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Zorionsu ez dena, harrizko ontzi agor bat bezalakoa da. Jesu Kristogan bere poza aurkitzen duena berriz, ardo gozodun iturri ugaria bihurtzen da, guztien pozerako, norbere zorionerako eta Jainkoaren aintzarako.

Lehenengo irakurgaia (Is 62, 1-5)

Isaias Profetaren liburutik

Sionen maitasunez ez naiz isilduko, Jerusalemen maitasunez ez naiz geldi egongo; haren garaipena goiz-argia bezala agertu arte, haren salbamenak zuziak bezala distiratu arte.

Eta ikusiko dute herriek zure garaipena, errege guztiek zure ospea; izen berria ezarriko dizute, Jaunak berak emana. Koroa eder izango zara Jaunaren eskuan, errege-diadema zeure Jainkoaren eskuan.

Ez dizute berriz deituko «Zapuztua», ezta zure lurraldeari ere «Hondatua». «Ene atsegina» deituko dizute zuri, eta «Emazte» zure lurraldeari. Atsegin izango baitu zagan Jaunak eta emaztetzat hartuko du zure lurraldea.

Mutila neskatarekin ezkontzen den bezala, hala ezkonduko da zurekin zure eraikitzailea; senarra emaztearekin pozten den bezala, hala poztuko da zurekin Jainkoa.

Erantzun-salmoa (*Sal* 96 [95], 1-2a. 2b-4. 7-8a. 9-10ac)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -
ak biz - ten di - tu.

- ∞. Kanta Jaunari kantu **berria**,
kanta Jaunari, lur **osoa**,
kanta Jaunari, bedeinkatu **haren** izena! **R**.
- ∞. Hots egin egunez egun salbatzaile **de**la.
Zabaldu haren ospea nazioetan,
haren mirariak herri guztietan. **R**.
- ∞. Goretsi Jauna, munduko **herriok**,
goretsi Jaunaren ospea eta **indarra**,
goretsi Jaunaren izen **ospetsua**! **R**.
- ∞. Gurtu Jauna, hura santutasunez **agertzean**,
ikara zaitez, lur osoa, haren **aurrean**.
Esazue nazioetan: «Er**ge** da Jauna,
herriak zuzenbidez **ditu** epaitzen». **R**.

Bigarren irakurgai (*1 Ko* 12, 4-11)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

Honela, bati jakinduriaz hitz egitea ematen dio Jainkoak Espirituaren bidez; beste bati, Espiritu beraren arabera, ezagueraz hitz egitea; bati, Espiritu beraren egitez, sinesmen-dohaina ematen dio; beste bati, Espiritu beraren egitez, sendaketak egiteko dohaina; bati, mirariak egiteko ahalmena; beste bati, Jainkoaren izenean hitz egitea; bati espiritu faltsua eta benetakoa bereiztea; beste bati, hizketa arrotzez mintzatzea, eta beste bati, hizketa horren esanahia adieraztea.

Hori guztia, ordea, Espiritu batek berak egiten du, bere dohainak nahi duen bezala bakoitzari banatuz.

Aleluia (Ik. 2 Ts 2, 14)



∇. Honetarako deitu gaitu Jainkoak Berri Onaren bidez, Jesu Kristo gure Jaunaren aintza eskuratzeko. ∇.

Ebanjelioa (Jn 2, 1-12)

Homiliarako argibideak

0.- Jesus gure etxean

Jaunaren bataioaren ospakizunarekin amaitu genuen aurreko igandean Eguberrialdia. Eta, bataio hura oroitzuz eta gurea berrituz, martxan jarri gara Urtean Zeharreko 33-34 igande ospatzeko.

Ez dugu aitzakiarik patxadaz eta denboraz gure fedea sakondu eta ospatzeko. Eta, denboraldi honi jarraipena emateko, Galileako Kanan Jesusen egin zuen lehen-ezaugarria oroitzen dugu.

Aldi hartan eztei honen festara joan zen moduan, gaur ere gure etxera datorkigu Jesus. Talde polita osatu zuten festan: ezkon berriak eta, gonbidatuen artean, ikasleak, ama eta Jesus bera.

Halakoxe elkarteak osatzen dugu geuk ere, txikiak, nahiz ertain edota handiak izan arren gure ospakizunak aldareko mahaiaren inguruan: Jesus erdian eta gu, amarekin batera, mahai inguruko ikasle izatea berrituz.

Eta elkarketa hau festarako gai da. Onean eta txarrean Jauna hori dugulako gure ondoan, beti leial eta gertu.

1.- Ezteiak ospatuz

Eztei horretan gertatutakoa Jesusen lehen-ezaugarria egiteko aitzakia ezin hobea izan zen: “ez dute ardorik” -amaren ahotan.

Eta, gure etxeetan bezalaxe, amak esandakoari men egin behar zaio. Jesusen gizaki izatearen kontraesan berak eramaten du hasierako erantzun petrala: “utz nazazu bakean”.

Baina, amak ikusi du festaren erdian zer falta zaien: Jesusen Berri Onak ekar dezakeen ardo berria, barrutik kanpora on egiten duen ebanjelioa.

Eta juduek garbikuntzarako erabiltzen zituzten ontzi haiek bihurtzen dira Itun Berriaren atari. Galileako Kanan hasten da Jesusen misioa, amaren bultzadari esker.

Gure kristau elkarteak eraberrikuntzarako bultzada hori gure etxeko amei eskatu behar genieke, hain hurbil ditugun emakume leial eta zenbaitetan esker txarrekoak.

Gure elkarteetan Ebanjelioaren poza berreskuratzeke Jesusen ardo berri hori behar dugu, ezinbestez.

2.- Misioa martxan

Urtero bezala, Haur Misiolarien Jardunaldia ospatzen dugu gure elkarteetan. Era apal eta txikian hasi zen Jesusen misioak gaurkoan ere oroigarri berezia du mundu zabaleko Elizan: txikiak dira lehenak, haurrak dira Ebanjelioa zabaltzeko ereile eta protagonista. Jarri dezagun erdian Jesus eta egin dezagun Galileago Kanan bezala: “Egizue berak esango dizuena”.

Jakin gabe zehatz-mehatz nora goazen, badakigu norekin gauden bizitzako bidai honetan. Jesus dugu gure festako bidaide. Estualdian ere hor izango dugu hurbil.

Amari esker Jesusek lehen urratsa eman bazuen misio ekintzari hasiera emateko, fida gaitezen gure etxeko amak eskatutakoari, gure amek agindutakoari. Ez dugu kale egin behar, gure kristau elkarteetan misioaren ipar orratza galdu nahi ez badugu.

Egin dezagun elkarrekin bidea eta, gure txikitasunean ere, adierazi dezagula hitzez eta ekintzez, hortxe Jaunaren aintza agertzen dela.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok egiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala errukiz gure otoitzak:

- Elizaren alde, bakean eta batasunean biziz, Jainkoaren ezaugarri izan dadila mundu zabalean. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriko eta herrialde guztietako agintarien alde, Jainko gure Jaunak argi ditzala haien pentsamenduak, egiazko bakeranzko erabakiak har ditzaten beti. Eska diezaiogun Jaunari.

—Bihotz-berritze bidean direnen alde eta bataioa hartzeko prestatzen direnen alde, Jainkoak bere errukiaren ateak zabal diezazkiela eta Kristoren bizi berrian parte eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

—Hemen gurekin ez dauden etxeko eta adiskideen alde, Jainkoak entzun ditzala haien otoitzak ere eta bere asmoetan lagun diezaienla. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure esku, Aita, gure gogo eta eskariak. Egizu, gure jokabidea bat etor dadila eskatu dugunarekin. Sutu gugan zure Erreinua gauzatzeko gogo. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Egizu, Jauna, parte har dezagula sarri sakramentu honetan, gure erospena gertaberritzen baita Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dugun bakoitzean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espirtua, bizia ematen duen ogi zerutar bat beraz janaritu gaituzunok bat izan gaitezen bihotzez maitasunean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Urtarrilaren 26an
URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA (C)

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako Oharpena

Kristoren gorputza osatzen dugunon, Eliztarron batasuna ospatzera biltzen gara Eukaristian. Jainkoaren Hitzza eta biziaren Ogia geureganatuz egiten dugu hori. Aldarrikatzen dugun Hitzza geuregan betetzen saiatuz. Horixe gogoratzen zaigu Jainkoaren Hitzaren igandea den honetan: Hitzza dela kristauon fedearen elikagai nagusienetakoa. Horixe hausnartuz eta ospatuz hasiko gara.

Damu-otoitza

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zuzendu zeure gogara gure jarduera, zure
Seme maitearen izenean fruitu on ugari eman dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Erbestean igarotako garai luzearen ondoren, Israel herria berriro ere bere sustraietara itzuli zen. Jainkoaren borondatea -Liburu santuan azaldua- izan zen herriaren oinarria. Gaur ere badugu, Jesusen erara, Ebanjelioan errotu eta Jainkoaren nahia betetzeko beharra. Baita Bere indarra ere.

Lehenengo irakurgaia (Ne 8, 2-4a. 5-6. 8-10)

Nehemias liburutik

Egun haietan, Esdras apaizak Moisesen legearen liburua ekarri zuen, gizon-emakume eta ezaguera zuten guztien batzarraren aurrera. Zazpigarren hilaren lehen-eguna zen. Eta goizetik eguerdia arte Urtearen aurreko plazan batzar osoari irakurtzen aritu zitzaion; herri osoa adi-adi zegoen legearen liburua entzuten.

Esdras lege-maisua, hartarako egina zuten oholtza gainean zegoen zutik. Esdrasek liburua zabaldu zuen herri osoaren aurrean, bera denen gainetik jarria baitzegoen; liburua zabaltzeaz batera, herri osoa zutitu zen. Gero, Esdrasek Jauna Jainko handia goretsi zuen, eta herriak, eskuak jatorik, «Amen, amen» erantzun zuen; ondoren, makurtu eta lurreraino ahuspeztuz, Jainkoa gurtu zuten.

Lebitarrek argi eta garbi irakurtzen zuten Jainkoaren legea, esanahia azalduz, herriak ulertzeko eran.

Herri osoak negarrari eman zion, legearen hitzak entzutean. Orduan, Nehemias gobernariak, Esdras apaiz eta lege-maisuak eta irakasten ari ziren lebitarrek esan zioten herriari: «Gaurko eguna Jaunari, geure Jainkoari, sagaratua dugu; beraz, ez egon triste, ez negar egin».

Gainera, esan zieten: «Zoazte eta jan haragi guria, edan ardo gozoa, eta bidali janaria ezer prestaturik ez dutenei ere, egun hau Jaunari sagaratua baita. Ez atsekabetu, Jaunaren poza baita zuen indarra».

Erantzun-salmoa (Sal 19 [18], 8-9. 10 eta 15)



∞. Jaunaren legea bikain, barrena arnasber**rr**itzen du;
Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur **eg**iten du,
Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren **poz**garri;
Jaunaren agindua distiratsu, begien **argi**garri. ∞.

∞. Jaunaganako begirunea garbi, betiko **irau**ten du.
Jaunaren erabakiak egiazko, den-den**ak** bidezko.
Har itzazu atseginez nire hitz eta **gog**oetak,
Jauna, ene harkaitz, ene **ask**atzaile. ∞.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 12, 12-30 edota, laburrago 1 Ko 12, 12-14. 27)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Gorputzak, bat izanik ere, atal asko ditu; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza

bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. [Oinak esango balu: «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak esango balu: «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena», ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena?

Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra. Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik».

Gehiago oraindik, makalenak diruditen gorputz-atalak beharrezkoenak dira, eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak itzal eta begirune handiagoz inguratzen eta zaintzen ditugu; izan ere, berez ohoragarri direnek ez dute arreta horien beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore gabeko ziren atalei begirune handiagoa eman zien. Horrela, ez dago zatiketarik gorputzean, eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Atal batek min duenean, min dute gainerako atal guztiak harekin; eta, atal bat ohoratua denean, poza dute gainerako guztiak harekin.]

Zuek, beraz, Kristoren gorputza zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. [Eliz elkartean bakoitzari bere tokia ezarri dio Jainkoak: lehenengo apostoluak jarri ditu, bigarren profetak, hirugarren irakasleak, ondoren mirarigileak, gero sendatzeko edo

behartsuei laguntzeko dohaina, nahiz elkartea gidatzeko edota hizketa arrotzez mintzatzeko dohaina dutenak. Denak apostolu ote dira? Denak profeta? Denak irakasle? Denak mirarigile? Denak ote dute sendatzeko dohaina? Denak mintzo ote dira hizketa arrotzez? Denak ote dira hizketa arrotzen interpretari?]

Aleluia (Ik. Lk 4, 18)



∇. Behartsuei Berri Ona ematera bidali **nau** Jaunak, gatibuei askatasuna hots **egitera**. √.

Ebanjelioa (Lk 1, 1-4; 4, 14-21)

Homiliarako argibideak

0.- Jarri da martxan

Galileako Kanan hasietakoak ez du etenik izango Jesusengan. Joan Bataiatzailea kartzelan dago egia borobilak jaurtitzeagatik Herodesi. Profeta guztien patua horixe da, tamalez.

Joanek hasitakoari jarraipena emango dio Jesusek eta bere betera eramango du. Jesus baita Bataiatzaileak iragartzen zuena, Jesus etortzekoa zena martxan jarri da.

Joan espetxean dago eta Jesus kalean Berri Ona iragartzen dabil.

Gure Salbamenaren Historiak une honetantxe du aro berri baten hasiera: Isaias profetak esandakoa betetzen hasi da, ilunpetik argirako bidea da Jesus, “herriak argi handia ikusi zuen”.

1.- Bihotz-berri zaitezte

Hasierako Jesusen lehen hitzek bere egitasmoa agertzen dute eta laburbiltzen: bihotz-berritu eta zeruetako erreinuaren hurbiltasuna bizitzen hasi.

Ez al da bihotz-berritze hori Garizumako kontua? -galdetu diezaguke norbaitek. Bai, garai horretarako eskari aproposa da bihotzari eta gure jarrereri errepasoren bat ematea. Baina, konbertsioa urte osoko jarrera da, bizitza osoko ibilbide luzea.

Eta bide horretan ez gaude bakarrik. Jesusek hots egiten duen premia gaur bertan jarri behar da martxan, bere antzera, Zabulonon eta Neftaliren lurraldean. Jesusek han eta guk geure herrian, gure auzoan, gure etxean.

Etetik hasi behar da bihotz-berritze lan hori. Eliza bera ez dago premia eta eginkizun honetatik libre. Ezin dute Elizako arduradunek eskatu eurek eman behar duen lehen urratsa emateko prest ez badaude.

Denok gaude konbertsioaren premian, denok batera entzun behar dugun Jesusen eskaria gaur eta hemen.

2.- Berri ona

Galileako itsasbazterrean aukeratzen ditu Jesusek bere lehen ikasleak eta bide berri honetako lagun egiten ditu.

Jesusek ez du Berri Ona bakarka iragartzen hasi nahi, lagunak nahi ditu, ikasleak behar ditu, berak hasitakoari jarraipen eman diezaioten.

Bi mila urteko bide luzea egin dugu ikasleok. Guregana iritsi zaigun Berri Onak kate luzea du, eskuz-esku pasa dena, ahoz aho iritsi zaiguna.

Ez gara ba gu izango historia honetako azkenak? Ez ote da galduko Jesusek hasitako Berri Onaren ametsa eta hitza galduko, ahaztuko?

Hau ez dago gure esku bakarrik. Jaunari esker bagoaz, zenbaitetan oker eta beste batzuetan zuzen. Izan gaitzezela jasotakoaren Berri Onaren altxor horretako zaindari eta iragarle, giza arrantzale, Ebanjelioaren pozaren hots egile.

Jesusen antzera herriko gaitz eta eritasunak ikusiz eskaini dezagula gauden tokian toki ebanjelioaren ukendua, Berri Onaren poza.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok, Jainko Aita errukiarrari, bere eskuetan baikaude, eta eska diezaigun uste onez entzun ditzala bere herriaren otoitzak:

- Jainkoaren Elizaren alde: egunez egun lehia handiagoaz bila dezala bere Jaunaren aurpegia eta bere kide guztiak saia daitezela bihotz berriz bizitzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Nazio guztietako arduradunen alde: gogoz eta kemenez lan egin dezatela guztiontzat bakea eta ongizatea bilatuz, denongan bakea eta justizia nagusitu daitezen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaixoen alde, kartzelatuen alde, sufritzen duten guztien alde: errukiaren Jainkoak barne-bakez bete ditzala eta guk denei lagun diezaiegula. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gauden guztion alde: Jainkoak fedean sendo irauteko eta elkarren maitasunean hazteko grazia eman diezagula. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure Semea bidali duzu, Jauna, behartsuei Berri Ona iragartzera, gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena ematera; entzun gure otoitzak eta egizu Zure hitza entzun dadila mundu osoan eta gu, hitz horrek bizkorturik, salbamenaren hots egile izan gaitzela gizakien artean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Begira, Jauna, begi onez gure eskaintzari, eta sagara ezazu zeure Espirituaren indarrez, guretzat salbamen-sakramentu gerta dadin. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
bizi berriaren grazia eman diguzu;
egizu, poztu gaitzela beti dohain honetaz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Otsailaren 2

JAUNAREN AURKEZPENA

Bizitza sagaratuaren jardunaldia

Eliztarrak, eliza txikiago batean nahiz beste leku egoki batean bilduko dira, elizbiran joan beharreko elizatik kanpora. Elizbirarik ez bada, berriz, apaiza eta laguntzaileak ate ondoan edo toki egoki batean bilduko dira.

Kantu egoki bat kantatzen den bitartean kandelak piztuko dira. (Egokia litzateke kandelak pizteko norberaren pizgailua ez baizik eta Pazko-zuzia erabiltzea, gure argia Kristo dela irudikatzeko.)

Ondoren apaizak ospakizuna hasi, herria agurtu eta oharpena egingo du.

Agurra

Gure Maisu eta gure Jauna den Jesu Kristo, beti zuekin!

Apaizaren oharpena

Senide maiteok: Orain berrogei egun, pozaren pozez ospatu genuen Jaunaren Jaiotza-eguna.

Gaur, berriz, Jesus Jerusalemgo tenplura eraman zuten eguna dugu; Jesus aurkeztean, itxuraz, legea betetzea besterik ez zuten egin; baina, egiaz, fededunen herriari bidera irten zitzaion Jesus. Espiritu Santuak erakarririk, han zeuden tenpluan Simeon eta Ana zoriontsuak; eta Espiritu berak argiturik, haur txiki harengan Jauna ezagutu zuten, eta pozik eman zuten haren berri. Gu ere, Espiritu Santuak bildurik, goazen Jaunaren etxera, Kristoren bidera. Ogia zatitzean aurkituko eta ezagutuko dugu bera, berriro aintzaz agertuko zaigun arte.

Bedeinkapen otoitza

Oi Jainko, argi guztien iturria eta sorburua,
herrialde guztien Argia den Kristo erakutsi zenion
gaurko egunez Simeon zintzoari;
sagara itzazu kandela hauek zeure + bedeinkapenaz;
entzun zeure herriaren eskariak,
argiak eskuetan dituztela,
zure izena goresteko bildu baita hemen;
egizu, bide onean ibil daitezela, betiko argira iristeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Edota:

Oi Jainko, egiazko argia,
betiko argiaren egilea eta zabaltzailea,
isur ezazu fededunen bihotzean betiko argiaren distira;
eliza santu honetan kandela hauen dirdirak argitzen dituenak
zoriontsu irits daitezen zure aintzaren argira.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eta kandelak ur bedeinkatuz zirtatuko ditu, ezer esan gabe.

Ondoren bere kandela eskuan hartu eta esango du:

Goazen bakean Jaunaren bidera

Eta kantu egoki batekin elizbira hasiko da (edota apaizaren eta laguntzaileen aldarerako bidea).

Ondoren damu-otoitza utzi eta Aintza zeruetan kantatzen (esaten) da.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zure Seme bakarra, gurea bezalako giza izatez jantzirik, aurkeztu
 zuten gaurko egunez Jerusalemgo tenpluan;
 egizu, Jaun handi horrek,
 aurkez gaitezela gu ere bihotz-garbi zure aurrean.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak ez du bere herria inoiz baztertua uzten. Esperantza biziz itxarondakoa agertzen da Tenpluan. Fededun argitsu eta itxaropentsu izateko deia dugu, dudarik gabe.

Lehenengo irakurra (Mt 3, 1-4)

Malakias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jaungoiko Jauna: «Begira, hor bidaltzen dut Nik nire mezularia nire aurretik, bidea prestatzera. Berehala etorriko da santutegira zuek bila zabilzaten Jauna, eta zuek irrikatzen duzuen elkargo mezularia. Horra non datorren —dio diren guztien Jaunak—. Nor jasan haren etorrera eguna? Nor zutik egon, Hura etortzen denean? Urtzailearen sua bezala izango da, lisiagilearen zurigarria bezala; zilarra garbitzen duen urtzailea bezala ariko da; zilarra eta urrea bezala garbituko ditu Lebiren semeak; eta behar bezala eskainiko diote oparia Jaunari. Orduan atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehenengo urteetan bezala».

Erantzun-salmoa (*Sal 23, 7. 8. 9. 10*)

Jau - na da gu - re Sal - ba - tzai - lle - a. Gu -
re in - da - rra e - ta pa - ke - a.

Ateburuak, gora **zai**tezte,
aspaldiko atear, luza **zai**tezte,
Errege ospetsua **sar** dadin. R/.

Nor da Errege ospetsu hori?
Jaun indartsu eta a**hal**tua,
gudian Jaun a**hal**tua. R/.

Ateburuak, gora **zai**tezte,
aspaldiko atear, luza **zai**tezte,
Errege ospetsua **sar** dadin. R/.

Nor da Errege ospetsu hori?
gudari talde**en** Jauna,
Bera da Errege osp**ets**ua. R/.

Bigarren irakurgaia (*Hb 2, 14-18*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Familia berekoek odol eta haragi bat-bera dute; eta Jesusek ere gure odola eta haragia hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusiaren deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez bizitza guztian morroi zeudenak askatzeko.

Eta bere eskua luzatu die, ez aingeruei, Abrahamen jatorriari baizik. Horregatik, gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin eta Jainkoarenganako gauzetan apaiz nagusi leial, herriaren bekatuak ordaintzeko.

Berak, tentaldiak eta oinazeak izan zituelako, lagun diezaieke tentaldian daudenei.

Aleluia (*Lk 2, 32*)



Atzerriak argitzeko **argia**,
eta zure herri Israelen edergarria. R/.

Ebanjelioa (*Lk 2, 22-40*)

Homiliarako argibideak

0.- Berrogei egunen ondoren

Berrogei egun dira Jaunaren jaiotza ospatu genuela eta gaurko liturgiak Jesus haurra Jerusalemengo jauretxean aurkezten dute bere gurasoek Moisesen legeari jarraituz.

Hortik dator Jaunaren Aurkezpenaren eguna gaurko igandean ospatzea.

Lukas ebanjelariaren azpimarra Jerusalem izango da: Jerusalem da Jesusen aurkezpenaren abiapuntua eta hiri bera izango da Jesusen ibilbidearen helburu, bere nekaldi eta heriotzaren gune. Jesu Kristo da herri guztien jauretxe berria.

Jesusek bere gurasoen besoetan sartu zen Jerusalemgo jaurettxera. Guk ere elizako atea gure gurasoen eskutik igaro genuen. Legeak agintzen zuen oparia ez zen garrantzizkoa. Tenpluan Jesus Jauna zegoen, Jaunaren etxean.

1.- Haurra besoetan

Jainko Jaunak gizakiarengan jarritako konfiantza ez du etsi, gure artean jaiotzen den haur bakoitzak Jaunak gurekin duen itun leiala gogorarazten digu.

Itun Berri horren haurra Simeonek besoetan hartu eta barne bakea sentitu zuela adierazten digu gaurko ebanjelioan gizon zintzo eta jainkozalearen eresi ederrak. Jauna besoetan hartzean bakean hiltzeko prest zegoen.

Jainko Onak hitza bete du eta Jaunaren Aurkezpena ospatzean Jesus guregana etorri eta geratu dela ospatu dezakegu. Tenpluan aurkeztean, gizakion artean geratuko den Berri Ona agertu zaigu, haragi egindako Hitzak gure artean jarri du bizilekua eta herri guztien aurrean aurkeztu da.

Jesusen garaiko fededunek ez zuten egun guk ezagutzen dugun munduaren aniztasunaren arrastorik, baina, Simeonek iragartzen duena badaki besoetan duen haur hura ez dela ez dela eurentzat bakarrik. Jauna ez dela inoren ondare.

2.- Ikusi dute nire begiok

Israelgo esperantzaren oparia Simeonen begiek ikusi zuten aurrez-aurre. Guk ere, kristau elkartearen ospakizun bakoitzean, bide edo hiru elkartzen bagara bere izenean, hantxe ikusten dute gure begiek ere.

Gaur Biziera sagaratuaren Jardunaldia ospatzen dugu eta bokazio sagaratuaren oparia eskertzen dugu Elizan eta gizartean. Eskertzearekin batera Jainko Onak bokazioak sor ditzala eskatzen diogu gure artean, bataioaren indarra sentituz eta gure elkarte erlijiosoak indartu eta aberastu ditzan gizon eta emakume bokaziodunekin.

Gure ahultasunean ere elkartu gaitezela, batzarraren festa egiten jarraitu dezagula, heriotzak azken hitz ez duela iragartzen eta mahaiaren inguruan eukaristia eginez. Jaunaren izenean biltzen jarrai dezagula. Gertatzen dena gertatzen dela ere, Simeonek sentitu zuen zirrara sorrarazi dezagula liturgiaren edertasunean, elkartearen duintasunean eta gure bizitzako urrats apal horietan esan dezagula: “Jauna dago gurekin”.

“Haurra hazten eta indartzen joan zen”. Zenbaitetan senti dezakegu zahartzen eta ahultzen goazela. Baina indarra ez da gurea, Jaunarena baizik!

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz Jesus Jaunari, Moisesen legea betetzeko templuan aurkeztua izan zenari, eta eska diezaigun apaiz errukitsu bezala otoitz egin dezala guretzat eta gurekin:

— Elizaren argi distiratsu den Kristok eman diezaiela bere fededunei munduaren argi eta lurraren gatz izatea.

- Munduaren Salbatzailea herri guztietan hots egina eta aurkeztua izan dadila eta nazio guztien argi agertua.
- Bere bizitzaren azkena gertu ikusten duten adinekoek eta hilzorian daudenek mundu hau bakean utz dezatela, beren ibilaldiaren azkenean Salbatzailea ikusiko dutela jakinik.
- Mundura etorritako gizaki oro argitzen duen Kristo, ez dadila izan guretzat erorbide, altxagarri eta piztuera-bide baizik.

Jauna, Jainko ahalguztiduna, euren bidearen amaieran Simeon eta Ana adinekoen gogo santuak burutu zenituen; entzun gure otoitzak eta egizu gure begiek ere ikusi ahal izan dezatela Salbatzailea gure aintzaren betiereko tenpluan. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. \mathcal{R} . Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Atsegin dakizula, Jauna, Elizak pozik egiten dizun eskaintza, Zuk nahi izan baituzu zure Seme bakarra Bildots garbi Zuri eskainia izatea munduaren bizirako. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. \mathcal{R} . Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Simeonen itxaropena bete duzun Jauna, emaguzu, Eukaristia honi esker, zeure graziaren betea; eta egizu, hark, hil aurretik, Kristo besoetan hartzeko poza izan zuen bezala, guk ere, Jaunaren bidera goazenok, betiko bizia irits dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Otsailaren 9an
URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA (C)
«*Manos Unidas*» *erakundearen jardunaldia*

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako Oharpena

Ongi etorri, senideok, Jaunaren eguna ospatzera: Kristoren Piztuera gertaberritu eta beraren Erreinuaren presentzia bizitzera.

Manos Unidas erakundeak Gosearen Aurkako Jardunaldia du gaur, Izan ere, geure buruari bakarrik begiratzuz axolagabe bizi garenean, behartsuak ahaztuak geratzen dira, bazterrean. Gaurko jardunaldiak gure ardura esnarazi nahi du, gure otoiitzean eta eskuzabal izatean behartsuak eta bereziki gose direnak gogoan izan ditzagun.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela esan zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℞. Amen.

Otoitza

Zaindu familia hau, Jauna, zeure betiko maitasunez;
 eta gure esperantzaren oinarri bakarra
 zure grazia zerutarra denez gero,
 har gaitzazu beti zeure babespean.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Entzutera goazen Hitza indarrez eta misterioz betea dago. Isaiasek Jainkoaren esperientzia kontatzen digu, berak bizi izan zuen bezala. Deitua sentitzen da, baina deiak gainditua. Dei horrexek bete zituen apostoluak, eta dei hori jasotzen dugu guk ere gaur.

Lehenengo irakurgaia (Is 6, 1-2a. 3-8)

Isaias Profetaren liburutik

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, tronu altu eta garai batean eseria; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean; seinu hegal zituzten. Eta honela egiten zioten oihu elkarri: «Santu, santu, santua, Jaun ahalguztiduna! Lur osoa betetzen du haren aintzak!»

Ahotsaren oihuz tenpluko ate-orpoek dardara egin zuten, eta tenplua kez bete zen. Nik esan nuen: «Ai ene, galdua naiz! Ezpain kutsatuak baititut eta ezpain kutsatuak dituen herrian bizi naiz. Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi dut neure begiz!»

Une hartan, suzkoak bezalako izaki haietako bat etorri zitzaidan hegan, aldaretik suhatzez harturiko txingarra eskuetan zekarrela, eta txingarraz ahoa ukitu zidan, esanez: «Hara, txingar honek ezpainak

ukitu dizkizu; kendua duzu, bada, gaiztakeria, barkatu zaizu bekatua».

Orduan, Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor izango dugu mandatari?» Eta nik erantzun: «Prest nauzu, bidali neu».

Erantzun-salmoa (Sal 138 [137], 1-2a. 2b-3. 4-5. 7c-8)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
 a be - re be - ti - ko e - rru - ki - a.

- ✠. Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-**bi**hotzez,
 nire hitzak entzun dituz**u**lako;
 kantuz goratzen zaitut aingeruen **au**rrean,
 eta zure tenplu santurantz begira ahus**pe**zten naiz. ✠.
- ✠. Eskerrak ematen dizkiot zure izenari, ‘
 zure maitasun eta leialtasun**a**gatik,
 Paregabeak egin baitituzu zeure izena eta **pro**mesa.
 Dei egin nizunean, erantzun **ze**nidan,
 kemena bizkortu **bi**hotzean. ✠.
- ✠. Eskerrak emango dizkizute, Jauna, munduko errege **gu**ztiek,
 zure ahoko hitzak ent**zu**tean;
 kantuz ospatuko dituzte Jaunaren **bi**deak:
 handia da Jaunaren ospea **be**netan. ✠.



∇. Eskua luzatu eta salbatzen nauzu.
 Dena egingo du Jaunak nire alde.
 Jauna, zure maitasuna bettikoa,
 ez utzi bertan behera zeure eskuen lana! ∇.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 1-11 edota, laburrago 1 Ko 15, 3-8. 11)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: [Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten.]

Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei.

Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

[Izan ere, apostoluetan txikiena naiz ni, apostolu-izenik ere merezi ez duena, Jainkoaren Eliza pertsegitu bainuen. Baina naizen hau Jainkoak bere graziaz egin nau, eta haren grazia ez da nigan fruiturik gabea izan; gainerako apostolu guztiek baino lan gehiago egin dut, izan ere; ez, noski, nik, baizik eta Jainkoak nirekin bere graziaz.]

Horrela, bada, bai haiek eta bai nik, horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen.

Aleluia (Mt 4, 19)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

℣. Zatozte Nirekin, dio **Jaunak**,
eta giza arrantzale egingo **zaituztet**. ℞.

Ebanjelioa (Lk 5, 1-11)

Homiliarako argibideak

0.- Bi txalupa

Bokazioa eta misioa dira gure urteko ospakizunen ardatz. Hortik sortu eta horretara goaz, Jaunaren laguntzarekin.

Elizak ez du inoiz ahaztu behar bere hastapenetan bi txalupa besterik ez zirela. Eta txalupa horien indarra ez zela izan euren ahalmen edota ahalegin, gehienetan hutsala eta alferrikakoa.

Kristauok ez dugu inoiz ahaztu behar gure Jaunaren lehenbiziko urratsak estalpe batean izan zirela eta iheslari ziren familia baten babesean.

Hauskortasuna eta ahuldadea dira gizaki egindako Jaunaren lehen urratsak. Hori aukeratu zuen aske gu salbatzeko, hori izan zen Jaunaren aukera gu askatzeko etsipenaren hatzaparretatik.

Simon Pedro, Santiago eta Joane alferrikako arrantza egin zuten Jesusen hitz gozoari jaramon egin arte.

Gaur hiru ikasleen lehen urratsen kontakizuna aldarrikatu dugu. Hasiera apala, kasi lotsagarria, Jaunarekin kontaktzen ez badugu.

1.- Jo itsaso zabalera

Arrantzak arrakasta izan dezan Jaunari men egin behar diogu, bestela alferrik gabiltza. Jaunarekin kontaktzen ez badugu gure eginkizun eta asmoetan, onenak izanda ere, antzua izango da gure etekina.

Eta lorpena ez da arrain-pila harrapatzea bakarrik. Arrakasta gure bizitzako txalupa pobrean Jauna gurekin dagoela jabetzea da.

Hortxe, gure pobrezian, Jaunak ez du etsi, Jesus ez da gure bidai honetatik jaitsi.

Bokazioan aurrera egiteko, gure bataioa berritu eta indartzeko, Jaunaren hitzari kasu egin behar diogu, Jaunarengan jarri gure konfiantza. Eta Jaunaren aholku edo, hobeto esanda, aginduan fio izan.

Egungo fede bizitza ez da lehen baino zailago edota errazagoa. Baina, argi dago gizartearen une hauetan ez genukeela ibili behar itsas ertzetik gertu huts egiteko beldurrez. Ausart jokatu behar dugu eta duguna eta garena hortxe inbertitu, beldurrik gabe, konfiantza osoz: “jo itsaso zabalera”, Jesusek eskatutakoari men eginez, apostoluen antzera.

2.- Beldurrik gabe

Ustekabean, konfiantzaren txalupa horretan, gure neurriko arrakasta lor genezake gaur bertan.

Giza arrantzale gara, Pedro, Santiago eta Joanen antzera. Gure txalupa ez da lehen bezain handia. Gaudenak garai batean baino errazago sartzen gara ontzi honetan.

Baina, Jaunaren Espiritua gugan dago. Ezin dugu etsi konfiantza horretan. Uxatu ditzagun beldurrak, berritu dezagun bokazio deiaren poza eta hasierako apostoluekin batera egin dezagun itsaso zabalera, Jaun berak erakutsitako tokietara.

Ez gara perfektuak, bekatariak gara. Baina, Jaunak maite gaitu eta gizateriaren bidaia gurekin egiteko aukera egin zuen. Ezin diogu Jaunari huts egin.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok Aitari, betiereko Jainkoaren Semeari eta on guztiaren iturria den Espirituari:

- Munduan zabaldurik dagoen egiazko Jainkoaren elizarentzat, eska dezagun Jainko-maitasun egiazkoa. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako agintarientzat eta gizakien bizimodua euren eskuetan dutenentzat eska dezagun zuzentasun espiritua eta herritarrak zerbitzatzeko lehia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Zapalduak diren ahulentzat eta pertsegituak diren zuzenentzat eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari. Eska diezaiogun Jaunari.
- Geuretzat eska diezaiogun Jaunari seme-alabatzako begirunea, maitasun leiala eta bititza zorionsua. Eska diezaiogun Jaunari.

Ona zaren Jainkoa, gure ahultasunean konfiantza izanik Berri Ona zabaltzeko misioa eman diguzu; entzun Zure familia honen otoitzak eta egizu Zure Espirituaren indarrez saia gaitezela Zure Hitz salbagarria bihotz zabalez gizon-emakume guztiei entzunarazten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Jainko gure Jauna,
gorputzeko ahuldadean guri eusteko egin dituzu ogi-ardoak;
egitazu guretzat betiko biziaren sakramentu ere.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Oi Jainko,
ogi eta kaliza berean guk parte hartzea nahi izan duzu;
egizu, Kristorekin gorputz berean bat eginik,
eman dezagula pozik betiko fruitu ugari
munduaren salbamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Otsailaren 16an
URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA (C)

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako Oharpena

Kristoren eskaintzak ematen dio zentzua gure eguneroko ahaleginari eta eskaintzari. Berarengan dugun fedea ospatzen dugu elkarrekin Igandean, Jaunaren egunean. Kristo piztuak deitu gaitu gaur ere eta zoriontsuen eta apalen bidean zuzendu nahi ditu gure urratsak, Jainkoarengan gure bihotza jartzen dugunon urratsak.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera **etorri** zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia **eman** duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak **biltzen** dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,
bihotz garbi eta zintzoengan biziko zarela agindu duzu;
zeure graziari esker,
egin gaitzazu zure bizileku izateko gai.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkozko gizakiaren fruituak bikainak dira: justizia, errukia, besteen askatasuna bilatzea. Egiatzko iturritik edan behar benetako zoriona iristeko: Jainkoa da iturria, itxurazko zailtasunak gaindituz zorioneko egiten gaituena.

Lehenengo irakurgaia (Jr 17, 5-8)

Jeremias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Madarikatua konfiantza gizakiagan duena, giza indar hutsean oinarritzen dena eta bihotza Jaunagandik urrutiratzen duena. Basamortuko astalarraren antzeko da, ez du sasoi onik izango; basamortu kiskalian landatua dago, bizi ezineko gatz-lurrean.

Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena, bere euskarri Jauna duena. Ur-ertzean landatutako zuhaitzaren antzeko da, ur bizigarrietara zabaltzen ditu sustraiak; ez dio sargoriari beldurrik, haren hostoak beti hezerik; lehor-urtean ere hura lasai, ez dio utziko fruitu emateari».

Erantzun-salmoa (*Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6*)

- ∞. Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez diona, ‘
bekatarien bidean ez **dabilena**,
ezta lotsagabeen biltzarrean esertzen ere;
baizik eta Jaunaren legean atsegin **duena**,
haren legea gau eta egun hausnartzen **duena**. ℞.
- ∞. Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antzeko**koa** da:
ematen du bere garaian **fruitua**,
eta ez zaio hostorik **ihartzen**;
egiten duen guztia ongi zaio **ateratzen**. ℞.
- ∞. Ez horrela gaiztoak, ez **horrela**,
haizeak daraman galautsaren antzeko**ak** dira.
Jaunak zaintzen du zintzoen **bidea**;
gaiztoena, berriz, galdu **egiten** da. ℞.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko 15, 12. 16-20*)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Kristo hilen artetik piztua dela hots egiten bada, nolatan esaten dute zuetako batzuek hilak ez direla pizten?

Izan ere, hilak pizten ez badira, Kristo ere ez da piztu. Eta Kristo piztu ez bada, alferrikakoa da zuen sinesmena: zeuen bekatuetan zaudete oraindik. Eta zer esanik ez, hil diren kristauak ere galduak dira. Kristogan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara.

Baina ez, piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu.

Aleluia (Lk 6, 23ab)

A - le - lu-ia, a le - lu-ia, - a - le - lu- - - - ia. -

∩. Alai zaitetze eta egin **pozez** jauzi,
handia izango baita zuen saria zeruetan. ∩.

Ebanjelioa (Lk 6, 17. 20-26)

Homiliarako argibideak

0.- Berri onaren aldarria

Lukasen ebanjelioak Jesus ikasleekin menditik jaitsi zela adierazi digu gaurko irakurgaiari. Mateo ebanjelariak, berriz, Jesus mendira igotzen du. Bietan, ezbairik gabe, mezu bera, baina ñabardurak kontuan har ditzagun.

Lukasek lautada batean kokatzen ditu zorientasunak, bere interesa Jesus oinarrian jartzea baita, herriaren ondoan, jendetzaren ondoan.

Eta lautada horretatik iristen zaigu gaurkoan Jesusek aldarria, zorientasunen zerrenda.

Aurreko astean txalupa xume baten gainean bageunden, gaurkoan lautada batean gaude entzuteko prest, gizarteak alde batera utzi dituenak babesteko gertu, negarrez daudenen malkoak txukatzeke erne.

Jesusek, herriaren antsiak hurbiletik ezagutzen dituenek, betirako hitzak zuzentzen dizkigu. Hitz horiek kontsolamendu hitzak dira. Baina ez dira dagoenari eusteko, bizitzan tokatu zaigunarekin konformatzeko, gauzak dauden bezala jarrai dezaten, handiak txikia zapaltzen jarrai dezan.

Juxtu aurkakoa! Zoriontasunak ez dira lokartzeko pilula, egoeraren aurrean etsitzeko doktrina, indartsuen injustizia bedeinkatzeko otoitza.

1.- Zorionekoak

Zoriontasunak behartsua altxatzeko karrasia da, goseteari atea ixteko giltza, negarrez daudenengana hurbiltzeko deia.

Jainkoak ez du injustizia bedeinkatzen. Injustizia pairatzen dutenei gogorarazteko berak ez dituela bakarrik utzi. Gehiago oraindik, denak alde egiten dutenean, zoriontasunen Jauna gurekin dago, txarrean ere, gure atsekabe krudelean.

Horregatik Jaun Ahaltsua txikien eta baztertuen, pobreen eta biktimen Jauna da. Berak ez die herriaren oihuei gogorrarena egiten.

Elizaren arriskua hau izan da askotan: zoriontasunak sufrikarioaren ahoa estali eta indartsuei arrazoia eman die. Eta sufrimendu horretan, hortxe kieto jarraitzeko agindua eman Jaunaren izenean. Hori, lehen eta orain, Jesusen zoriontasunen aurkako mezua da.

2.- Ai zuek!

Mateo ebanjelariak bederatzi zoriontasun aurkezten baditu, Lukasek lau jarri ditu mahai gainean Jaunaren asmoa agertzeko.

Baina, ez du horrekin amaituko Jesusen gaurko aldarria. Pobreentzat itxaropenaren atea ireki du eta Jaunak bakarrik utzi ez dituela gogorarazi die.

Amaitu baino lehen beste lau ohartarazpen larri agertuko ditu. Pobreei zuzendu zaie, baina gozo eta aparretan bizi direnei astindu ederra emango die etxera joan aurretik. “Ai zuek” hasita gogorarazten die aberatsei jaso beharrekoa jaso dutela. Aseak direnei gosetea iritsiko zaiela noizbait. Barre artean bizi direnak, historiako biktimen egoerari muzin eginez, negarra iritsiko zaiela berandu baino lehen.

Jesusen gaurko zorientasunen aldarriak esperantza piztu du zoritzarreko bizitza pairatzen dutenen artean. Baina, munduari buelta emateko elkartasuna, zuzenbidea eta errukia behar dugu zorientasunen bidea ametsa bakarrik izan ez dadin.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jo dezagun, senideok, errukiaren Jainkoarengana eta eska diezaiogun bere gogora bizitzeko indarra:

- Mundu guztiko bakearen alde, Elizen onaren alde eta gizakien batasunaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beren ardurapean bizi oparoa eta bakezkoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Naturaren zaintzaren alde, lurraren emankortasunaren alde, munduaren aurrerabidearen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Piztueraren itxaropenean hil diren gure senide eta adiskideen alde, Jainkoak bakezko atsedena eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, handikiak beren aulkitik botatzen dituzu eta apalak goratzen; entzun gure otoitzak, aditu behartsu eta zapalduen deadarra, hautsi elkarren etsai egiten gaituen indarkeria eta emaguzu senide bezala elkar onartuz maitasunean bildutako gizadi berriaren ezaugarri izatea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Eskaintza honek, Jauna, garbi gaitzala eta eraberritu;
eta zure nahia betetzen dutenentzat
izan dadila betiko sariaren iturri.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. \mathcal{R} . Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, zerutar ogi osasungarria eman diguzu janari;
egizu, bila ditzagula guk ere beti
egiazko bizia ematen diguten ondasunak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. \mathcal{R} . Amen.

Otsailaren 23an
URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA (C)

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Zatiketa eta gorroto oro gaindituz Jainkoaren Pazko misterioan murgiltzen gaituen maitasun ospakizuna da Eukaristia. Presta gaitezen, Aitaren errukizko bihotz bera izaten laguntzen digun batzar santua ospatzeko.

Damu-otoitza

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaiogun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, zure laguntzak egin gaitzala gai,
beti zuzen dena hausnartuz,

Zuri atsegin zaizuna hitzez eta egitez betetzeko.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Aita errukitsua da Jainkoa, hala agertzen zaigu Liburu Santu osoan eta hala islatzen dute gaurko irakurgetan ere. Aita hori da Jesusek jartzen digun eredu, eta Aita horren antzekoak izatea da ezartzen digun neurria: barkatzaileak, errukitsuak, maitasunez beteak.

Lehenengo irakurgeta (1 Sm 26, 2. 7-9. 12-13. 22-23)

Samuel lehenengo liburutik

Egun haietan, Saul erregea Zif basamortura jaitsi zen, Israelgo hiru mila gizon aukeratu berekin zituela, Daviden bila.

David eta Abixai gauez iritsi ziren Saulen gudarostea zegoen lekura. Saul lo aurkitu zuten, kanpalekuaren erdian etzana, lantza lurrean sartua buru ondoan. Abner eta gainerako jendea erregearen inguruan zeuden lo. Abixaik esan zion Davidi: «Jainkoak zeure esku jarri dizu gaur etsaia. Uztazu lantza-kolpe batez lurrari josten; ez dut birritan jo beharrik izango». Davidek, ordea, Abixairi: «Ez hil! Ez litzateke zigorrik gabe geldituko Jaunaren gantzutuari eskua ezarriko liokeena».

Orduan, Davidek Saulen buru ondoan zegoen lantza eta ur-ontzia hartu zituen, eta alde egin zuten biek. Ez zituen inork ikusi, ez zen inor ohartu, ezta inor esnatu ere. Lo zeuden denak, Jaunak bidalitako lozorroak harturik.

David bestaldera joan eta mendi gailurrean gelditu zen, urrutian, etsaien eta bere artean tarte handia utziz. Davidek oihu egin zuen: «Errege, hona hemen zure lantza. Bidal ezazu mutilen bat bila. Nori berea ordainduko dio Jaunak, bere zuzentasunaren eta leialtasunaren arabera. Jaunak nire esku jarri zaitu gaur, baina nik ez diot eskurik ezarri nahi izan Jaunaren gantzutuari».

Erantzun-salmoa (*Sal* 103 [102], 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

- ∞. Bedeinka beza nire **arimak** Jauna,
 nire barren osoak haren izen **santua**.
 Bedeinka beza nire **arimak** Jauna,
 ez bedi ahaztu haren **mesedeaz**. ∞.
- ∞. Erru guztiak dizkizu **bar**kutzen,
 gaitz guztiak **sen**datzen;
 zure bizia hilobitik **askatzen** du,
 maitasunez eta errukiz koro**atzen** zaitu. ∞.
- ∞. Bihozbera eta errukiorra **da** Jauna,
 haserregaitza eta onginahiz **betea**.
 Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi **bezala**,
 ez digu ordaintzen geure erruen **ar**abera. ∞.
- ∞. Nola ekialdea mendebaldetik urrun,
 hala ditu hark gure hobenak gugandik **ur**runtzen.
 Nola aita seme-alabentzat **erru**kior,
 hala Jauna begirune diotenentzat **gupi**datsu. ∞.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 45-49)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: «Lehenengo gizakia, Adam, izaki bizidun bilakatu zen»; azkeneko Adam, berriz, Espiritu bizi-emaile.

Ez zen espirituzkoa izan lehenengoa, haragizkoa baizik; ondoren dator espirituzkoa. Lehenengo gizakia lurreko hautsetik hartua izan zen; bigarrena, berriz, zerutik dator. Lurtarra, Adam, lurtarren eredu da; zerutarra, Kristo, zerutarren eredu.

Eta lurtarraren irudiko garen bezala, zerutarraren irudiko ere izango gara.

Aleluia (Jn 13, 34)

∇. Agindu berria ematen dizuet, **di**o Jaunak:
maita dezazuela elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala. ∇.

Ebanjelioa (Lk 6, 27-38)**Homiliarako argibideak****0.- Maitasuna**

Maitasuna da ezbairik gabe Jesusen Berri Onaren ardatza. Baina definizio erromantikoetan ez erortzeko, Jesusek ikasleoi kontratuaren letra txikia irakurtzeko eskatzen digu gaurkoan.

Eta, itxuraz letra txikia dirudiena, ardatza gertatzen da. Ez al gara, ba, maitasunetik sortu eta maitasunera goazela jabetzen? Ez al ditugu eginkizun handi eta zenbaitetan aldrebesenak maitasunaren taupada sentitu dugulako?

Ez al da Hasierako Hitz hura maitasun hitza?

Baina, Jesusek maitasuna derrigorrezko ikasgaia eta ezinbesteko praktika dela adierazten digu bere jarraitzaileoi.

Kristauon oinarrizko izaera hauxe da: maitasuna.

1.- Meriturik ez dugu

On egiten digu maitasunaren ikasleak garela onartzea eta bide horretan gastatzen dugula gure bizitzako erregai handiena.

Baina, “zer esker on zor zaizue maite zaituztenak bakarri maite badituzue”? -esango digu Jesusek.

Eta ohartu gabe Jesusek maitasunaren aldarria beste maila batera igo digu. Erromantizismoa utzi eta gune praktiko batera eraman digu. Maitasunaren diskurtsoak dena jasaten duelako. Baina diskurtsoetik praktikara alde galanta dago!

Eta horixe ohartarazten digu Jesusen ebanjelioak: meriturik ez dugula maite duguna maitatzea. Koxka bat gehiago igo behar dela, munduak hobera egin dezan.

Jaunaren Erreinuak aurrera egingo badu, Jesusen maitasunaren eta indarkeriarik ezaren bidea hartuko duten gizon-emakumeak behar ditugu.

Eta lehen urratsa emateko prest egon behar dugunak Elizak kideok gara. Zenbaitetan kontrakoa egin eta adierazi arren, maitasunaren bidea da gure helburua.

2.- *Neurria*

Jesusek neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa eskaintzen digu bere maitasunaren bidea hartzen badugu. Eta maitasunaren giltza Jaunak gurekin etengabe duen errukia ulertzea eta hausnartzea da kontu.

Ez al naiz gai izango Jaunak nirekin duen errukia nire ingurukoei eskaintzeko? Ez dut, ba, eskatuko niretzat ni besteei emateko prest ez nagoena?

Jaunak gurekin duen neurriz izango gara gu neurtuak.

Itxurakeria utzi eta azaleko morala ahaztu dezagun maitasunaren bide zoragarri nahiz malkartsu honetan ibili nahi badugu.

Jesus dugu horren maisu eta urteak igaro ahala zenbait ikasten dugun jabetzen gara alboan dudak hurkoa maitatzeko gai ez banaiz.

Egin dezagun ikasleen bide apala. Urtea amaitu aurretik maitasunaren ikasgaia airean utzi ez dezagun, errukiaren bidea egin gabe, barkamenaren oparia eskaini gabe eta gizatasun apalaren eskaintza egin gabe. Bakoitzak jakingo du nondik hasi...

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainko onari otoitz xume eta egiazkoa eginez:

— Eguzki alde batetik besteraino zabaldurik dagoen Eliza Santuaren alde: Jaunak itxaropenean sendo dezala eta munduko lilura eta gehiegikerietara ez dezala jo. Eska diezaigun Jaunari.

— Munduan agintea dutenen alde: haien gidaritzapean bakez bizi gaitzela, Kristo, gure itxaropena, goratuz. Eska diezaigun Jaunari.

—Fedearen testigantza emateagatik sufritzen dutenen alde, misiolarien alde: Jaunak leial sendo ditzala. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jaunaren izenean bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde: Jainkoak fedean sendo gaitzala eta egun batean guztiok Bere erreinuan bildu. Eska diezaiogun Jaunari.

Dena errukia zaren Aita, Kristogan agertu diguzu Zure maitasun debaldekoa, entzun gure otoitzak eta emaguzu bihotz berria gure etsaiak maitatzeko gai izan gaitezen eta gure aurka direnen alde otoitz egiteko gai izan gaitezen Zure Semeak agindu bezala. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Zure misterioak dagokien begirunez ospatzean,
apalik eskatzen dizugu, Jauna,
zure handitasunaren ohoretan eskaintzen dugunak
ekar diezagula salbamena.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟̄.* Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna
salbamen-sakramentu honetan eman diguzun ogia
izan dezagula betiko biziaren ezaugarri.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟̄.* Amen.

Martxoaren 2an
URTEAN ZEHARREKO VIII. IGANDEA (C)

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Igandeko Eukaristian ospatzen dugu kristauok gure fedea. Astean zehar fede hori bizitzen saiatu garenok Jaunaren ondoan biltzen gara elkarrekin, gorputz bat beraren zati garenez. Entzun dezagun bere hitza, har dezagun bere Gorputz santua. Senti gaitezen bidaliak, eguneroko ahaleginean ospatzen duguna partekatzeraz.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Egizu, Jauna, mundu honetako gorabeherak
bidera ditzagula zure asmoen arabera
zuzentasunean eta bakean,
eta emaiozu Elizari zure zerbitzu santuan zintzo irauteko poza.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Liburu santua kutxa eder bat da, zabaltzen dugun aldiro ikasbide ederren bat ematen diguna. Gu ere kutxa eder bat garela oroitarazten digu gaur: barrua onez bete eta kanpora barruko ona ateratzera deitua dagoen kutxa ederra, Jainkoak egindako kutxa.

Lehenengo irakurgaia (*Sir 27, 5-8 [gr. 4-7]*)

Siraken liburutik

Galbaheari eragindakoan, hondarrak gelditzen dira, eta azterketa egitean, gizakiaren akatsak. Labeak probatzen ditu eltzegilearen ontziak, eta giza arrazoiketak gizakiaren balioa. Fruituak erakusten du nola zaindu duten arbola, eta hitzak gizakiaren pentsamoldea. Ez goratu inor hitz egiten entzun baino lehen, horretan probatzen baitira gizakiak.

Erantzun-salmoa (*Sal 92 [91], 2-3. 13-14. 15-16*)

Es - ke - rrak Jau - na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -
ti - ko - a bait da.



- ✠. Bai ederra, Jauna, Zu **g**orestea
 eta zure izena, Goi-goiko, kantuz **o**spatzea,
 goizean zure maitasuna **i**ragartzea
 eta gauean zure lei**a**ltasuna. ✠.
- ✠. Zintzoa palmondoa bezala **g**aratuko da,
 Libanoko zedroa bezala **h**aziko;
 Jaunaren etxean **l**andaturia,
 gure Jainkoaren atarrietan **g**aratuko da. ✠.
- ✠. Zaharturik ere emango **d**u fruitua,
 mardul eta heze **i**raungo du,
 Jauna zuzena dela **i**ragartzeko,
 nire harkaitza, gaiztakeriarik **e**z duena. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 54-58)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Gure izate ustelkorra bizi ustelezinez jantziko denean, eta izate hilkorra hilezkortasunez, orduan beteko da Liburu Santuak dioena: «Behin betiko garaitua gertatu da heriotza. Non duk, herio, heure garaipena? Non heure eztena?» Heriotza dakarren eztena bekatua da, eta bekatuak legetik hartzen du bere indarra. Eskerrak Jainkoari, garaipena eman digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

Beraz, ene senide maiteok, iraun sendo, asmoz aldatu gabe, Jaunaren lanean gero eta gogotsuago, jakinik Jaunak ez duela zuen nekea saririk gabe utziko.

Aleluia (*Flp 2, 15b-16a*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Izarrek munduan bezala egiten duzue argi gizarte honetan, bizia ematen duen mezuari tinko eutsiz. ∇.

Ebanjelioa (*Lk 6, 39-45*)**Homiliarako argibideak****0.- Oharpena**

Aurreko igandeko ebanjelioaren jarraipena da gaurkoa: “zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak”.

Horregatik gaurko Berri Ona kontrako eztarritik joan dakiguke gure hipokresiaren neurria neurtzeko gai ez bagara.

Jainkoaren neurria errukia bada, gurea zenbaitetan zurikerian erortzeko arriskuan egoten da. Bestearen erruak besterik ikusten ez ditugunean eta gurean erreparatzeko gai ez bagara, gizagaixoak besterik ez gara, hipokritak!

Gaurkoan Jesusek egurra ematen digu eta inor ez da libratzen, denok baitaukagu gure barne ezkutu horretan lotsa ematen digun fariseua, kanpora begira ezkutatzen duguna. Jesusek jarritako adibidea hain da argia eta zuzena, sinesgabeek ere ondo asko ulertzen dutela esandakoa: “zeure begian duzun habea ez duzu ikusten eta hurkoari esaten diozu uztazu begian duzu lasto-izpia ateratzen!”. Jendearen aurrean barregarri eta Jaunaren aurrean errukarri.

Harrokeria espiritualak ez digu honetan laguntzen, gure eskakeria onartzeko denbora hartzen ez badugu.

Jesusen oharpena gogorra da eta, neurri batean edo bestean, denok ikusten dugu aurpegiatze horretan geure burua lotsagarri Jaunaren aurrean.

1.- Barrutik aldatu

Edonola, Jesusen asmoa ez da gu lotsatan uztea, besteen aurrean lotsagarri eta gure kontraesana mahai gainean.

Gizaki izatearen kontraesan iskanbilatsuei buelta emateko barrutik aldatzeko gonbidapena egiten digu, "barneko ondasun-altxorra" zaintzea.

Argi dago Elizaren ere gauzak barrutik aldatu behar direla, bihotza aldatu behar dugula denok eta gauza xumeen barneko zaina eraldatu behar dugula.

Itxurazko aldaketa adierazi nahi badugu, kanpotik pintura ematea bezala litzateke. Alferrik, barrua hautsez eta simaurrez beteta badago. Gauzak barrutik aldatzen badira, gure betiko ikasgaia bihotz-berritzea da.

2.- Bihotza zaindu

Eukaristiaren mahai honetara gonbidatuak bagara ez da onak, ezta onenak garelako. Hobera joan nahi badugu, Jesusen Hitza pizgarri hartu behar dugu ipar helburu bezala eta bihotza zaintzeko prest egon. Bihotzeko jarrerak landu, bihotzaren samurtasunera garamatzaten baloreak jorratu gazte, nahiz familietan, kristau elkarte maitasunaren eskola izan dadin.

Ez gara asko gaur egun igandero ikasgai honetara elkartzen garenak. Baina, senide-elkartasunean pixkanaka ematen ditugu urratsak,

apalak eta isilak, geure bihotza aldatuz mundu hau Jaunaren borondatearen arrastotik eraman dezagun.

la asmatzen dugun!

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senide maiteok, Jainko Aita ahalguztidunari eta eska diezaiogun datorrela bere herriari laguntzera:

- Eska diezaiogun Jaunari, Elizaren alde: bizi-eraz dezala eta santu egin, gizakien ongari eta Jainkoaren aintzagarri izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun Jaunari, munduan agintea dutenen alde: beraien ardura behartsuenen onerako eta guztion ongizaterako bete dezatela. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun Jaunari, era askotara besteen zerbitzura bizi direnen alde, Jesusen maitasuna nabarmen erakuts dezatela inguruko guztiak ulertzeko moduan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun Jaunari hemen bilduak gaudenon alde: gure bekatuak barka ditzala, bere argia eman diezagula eta bere Semearen aitormen egiteko sendo gaitzala. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta egizu, Elizan jakinduria iturri eta bizi eredutzat entzuten den hitzak, lagun diezagula gure senideak ulertzen eta maitatzen, elkarren epaile ez, baizik eta onginahiaren eta bakearen zerbitzari izan gaitzen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Oi Jainko, Zugandik hartu ditugu dohain hauek
eta, guk eskainirik,
gu guztion zerbitzuaren seinaleztat onartzen dituzu;
egizu, gure merezimenduzat hartzen duzun eskaintza honek
ekar diezagula betiko saria.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟̄. Amen.

Jaunartze ondorengo otoitza

Zure dohain salbagarriak harturik,
apalik eskatzen dugu, Jauna, zure errukia,
orain janaritzat sakramentu hau ematen diguzun bezala,
zeure bihotz onez betiko biziaren jabe egin gaitzazula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟̄. Amen.

Martxoaren 5ean
HAUSTERRE EGUNA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizuma hasten dugu gaurko Eukaristia honekin. Bertan hautsaren ezaugarriaren bidez gure bekatari izatea aitortuko dugu, eta Bataioaren bidea berreginez Pazkora gerturatu behar dugula onartuko dugu. Penitentzia-aldia eta Bataio-aldia badugu Garizuma, baina bereziki Pazkorako prestaera aldi dugu. Larunbat Santu gauez ospatuko dugun Pazko Gaubeila Santuari begira jartzen gara gaurtik. Han garbituko dira gaurko hautsaren bekatu-aztarnak. Han berrituko da gure Bataioko hitza. Han Kristo garaile agertuko da berriz heriotzaren gainetik bizia berrituz. Pazkoa dugu guk, hitz emandako lurra. Hara goaz, Israel-herri izaki, basamortuko bidea eginez.

Hautsaren ezaugarria egingo denez, ez da Damu-otoitzik egingo

Otoitza

Lagun iezaiozu, Jauna, kristau-herriari
barau-egun honekin benetan bihotz-berritzeko bidea hasten,
penitentziaz indarturik,
gaiztakeri espirituaren aurkako ahaleginean garaile atera dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Garizumako jarrera berezia da, penitentzia eginez prestatzea. Pazkoan Kristoren heriotzaren lehenengo ondorioa: Jainkoarekin adiskidetzeari gertatuko da, horretarako prestatzen ari gara.

Lehenengo irakurgaia (Jl 2, 12-18)

Joelen profezia liburutik

Orain, honela mintzo da Jauna: «Itzul zaitezte Nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserregaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena. Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isur-oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkongelatik, emaztea ezkonohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak. Esan bezate: “Barka, Jauna, barkatu zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela menderatu atzerritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”» Bere lurraldearekiko maitemenez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

Erantzun-salmoa (Sal 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki, Jau - na, be - ka - tu e - gin du - gu ta.



∞. Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko gupidaz.
Garbi nazazu zeharo neure errutik,
garbitu neure bekatutik. ℞.

∞. Aitortzen dut, bai, neure hobena,
begi aurrean dut etengabe neure bekatua.
Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dut bekatu, ‘
zure begietan oker dena egin dut.
neure hobena beti begien aurrean baitut. ℞.

∞. Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan,
berritu arnasa sendoa nire barnean.
Ez nazazu bota zeure aurretik,
ez kendu niri zeure arnasa santua. ℞.

∞. Poztu nazazu berriro zeure salbamenaz,
sendo nazazu zeure arnasa oparoz.
Ireki, Jauna, nire ezpainak,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena. ℞.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 20 – 6, 2)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitzete Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamina irits genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Sal* 95 [94], 8a. 7d)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

∇. Gaur, ez gogortu zuen **b**ihotza,
entzun Jaunaren **a**hotsa. ∇.

Ebanjelioa (*Mt* 6, 1-6. 16-18)

Homiliarako argibideak

0.- *Garizumaren hasiera*

Garizumari hasiera ematen diogu kopetan jarritako hausterrearekin. Ezaugarri ikusgarria da, bide bat hasi dugun eta egin nahi dugun ikurra.

Errautsa kopetan hartzeko makurtzen dugu burua, baina era berean, bihotza, bizitza eta gure kristau izatea altxatu nahi dugu. Urteroko bidea da, aurrekoan asmatu ez genuen bezala. Errepikatzen dugun ezaugarria da, aurrekoan kale egin genuelako ez, Jesusekin bide bera egin nahi dugulako, bere eskutik Jerusalemgo bidea.

Garizumako bidea malkartsua da, ez da nolana egingo. Horrexegatik, apaltasunez, harrokeriak alde batera utzi eta kopetan

ikur grisa jarrita hasten dugu. Bekatariak garela onartuz, Jaunaren errukiaren premian gaudela.

Garizuma egiteko bi giltza aurkituko ditugu han edo hemen: Jainkoaren Hitza entzun, barneratu eta hausnartu eta bihotz-berritzeko bideari berriko ekin.

Bide honen helburua garbi dugu. Ez du bidea hau egitea merezi Jesusekin bere Nekaldia, Heriotza eta Biztuera ospatzeko prest ez bagaude.

1.- Zer egin behar ez den

Kristauon aszesia apaltasunez bizi behar da. Gaurko ebanjelioak Elizako penitentziaren hiru ezaugarriak hartzen ditu aintzakotzat: limosna, otoitza eta baraua.

Baina Jesusek egiten digun oharpena nola egin behar ez den ohartarazten digu itxurakerietan eror ez gaitzen.

Eta itxurarazalekeri hori lehen eta oraingo tentazioa da. Batetik, itxurazko ekintzak egin bai: limosna, otoitza eta baraua, baina egiten duenaren zurikeriak dena zapuztu dezake.

Eliztarrok egiten dugun karitateak oinarrizko kalitatea izan behar du. Karitatea eta itxurakeria ez dira ezkontzen. Hare gehiago, bigarrenak lehenengoa faltsutu dezake.

Eta, ustekabeen, Jesusek ondo asko erreparatu zuen ekintza horiek zenbaitetan fededunen harrokeria ezkututzen zutela.

Ez egin, beraz, karitatearekin besteak ikusteko ikuskizuna, pobrea eta premian dagoena lotsatan uzteko. Egin behar duguna egin dezagun, baina itxurakeriak gabe!

Garizuma egiaz egin behar da.

2.- Zer egin behar den

Jesusen pedagogia ulergarria da eta zorrotza era berean. Zer egin behar ez den ohartarazi ondoren, zer egin behar den eta nola adierazten digu hiru aipuak jorratuz.

Limosna egiterakoan “ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak”. Eman behar badugu, izan gaitzela eskuzabalak eta inori ez diezaiogula konturik eskatu gure oparotasunarengatik.

Otoitz egitean, berriz, “sar zaitez zeure gela, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari”. Otoitzean Jainkoarekin eta hurkoarekin barnetasuna bilatu behar dugu. Sartze hori ez da nire etxeko gelan bakarrik gertatzen, norberaren bakardade misteriosu horretan ere, Jaunarekin egiten dugun entzute patxadatsu horretan egiten da otoitz.

Baraua ez da ariketa solidarioa inoiz izango, haragiari uko egin eta mahai gainean otarrain bat jaten badut. Geure burua engainatu dezakegu, baina Jauna ez. Baraua banatzea da eta etxeko mahaian pobreak jartzea, euren miseria ez ahaztea.

Garizumako bide hau egiteko ez da aurpegia ilun jarri behar. Etxetik ateratzean Jesusen lurrin gozoa jantzi eta kalera edota elkartera joango naiz berarekin bide hori egitea.

Hautsaren ezaugarria

Apaizak, zutik eta eskuak bildurik dituela, esango du:

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarri hartuko dugun errautsa bere grazia ugariz bedeinka dezan.
(*Isilunea*)

Oi Jainko, damutzen dena errukiz hartzen duzu
 eta bihotz-berritzen dena Zeurekin adiskidetzen;
 entzun aita-bihotzez zeure herriaren otoitza
 eta isuri bedeinkapenaren + grazia
 errautsa hartuko duten zeure seme-alaben gainera,
 Garizumako bidea arretaz eginik
 eta gogo-bihotzak eraberriturik,
 zure Semearen pazko-misterioa ospatzera irits daitezten.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Edota:

Oi Jainko, ez duzu bekatarien heriotza nahi,
 bihotz-berritzea baizik;
 entzun bihotz onez gure otoitzak,
 eta bedeinka + ezazu buruan ezarriko diguten errauts hau;
 badakigu hauts garela eta hauts bihurtuko;
 emaguzu, Garizumako egintzen bidez, bekatuen barkamena, zure
 Seme piztuaren antzeko biziera berria irits dezagun.
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Eta ur bedeinkatuz zirtatuko ditu errautsak, ezer esan gabe.

Gero denei batera esango die esaldi hauetakoren bat:

Bihotz-berri zaitetze eta sinetsi Berri Ona.

Edota:

Gogora zaitetz hautsa zarela eta hauts bihurtuko.

Ondoren jendeari buruan ipiniko dio hautsa isilik, ezer esan gabe.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin diezaiogun otoitz gure Jainko ahalguztidunari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

—Eliza bere kide guztiekin eta gizaki guztiekin bihotz oneko izan dadila. Egigun otoitz. ✠.

—Agintariak, bigarren mailako gizakirik egon ez dadila lan egin dezaten. Egigun otoitz. ✠.

—Sufrimendua eta zatiketa bizi duten familia guztien alde. Egigun otoitz. ✠.

—Seme-alaba garela konturatuz, elkarren senideago izan gaitezela. Egigun otoitz. ✠.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta agertu zure errukia herri honengan, Garizumako egun hauetan bihotzez bila zaitzagun eta konfiantzaz itxaron. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Garizumari hasiera ospetsuki ematean,
sakrifizio hau eskaintzen dizugu, Jauna,
eta otoitz egiten: gure penitentziek eta maitasunezko egintzek
lagun diezagutela geure buruaren jabe izaten,
geure bekatuetatik garbiturik
zure Semearen nekaldia bihotzez ospa dezagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hartu dugun sakramentuak, Jauna,
eragin diezagula Zuk atsegin duzun
eta guretzat osasungarri den baraua egitera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Oi Jainko, eman bihotz onez damu-espiritua
zure aurrean apalki makurtzen diren zure seme-alabei,
damutuei Zuk agindutako saria
zure errukiari esker irits dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.

